

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

*Florencio Sarasua Zabala Txikito
Mallabia*

*Mallabia,
Bizkaia
(1926-2014)*

Aurkibidea



Biografia



Mallabiko Torre baserrian jaio zen 1926an. Vicenta ama zen bertakoa eta Francisco aita Ziortza-Bolibartik bertara ezkonduakoa. Zortzi anai-arreba izan ziren eta "Artixeko" eskolara joan zen, harik eta koskortu arte. Indar handiko gizon gihartsua izanda, laster hasi zen harri-eta karga-jasotze erakustaldiak egiten inguruko jai eta erromeria egunetan. "Basarri" bertsolariak 'La Voz de España' idazten zuela, "El peque de Mallabia" izena jarri zion eta harrezkero horrela deitu izan diote. Oraindik gainditu gabe dagoen errekor bat berea da: 62 kiloko pisuarekin, bere bikoitza zuen 125 kiloko harri zilindrikoari 98 altxaldi ematea, 10 minutuko hiru txandatan banatuta. Erretiratu ostean, oraindik indartsu ikusten zela, eta 44 urte beteta berriro irten zen plazara; Ermuan plazaratu zen azken aldiz, 62 urterekin. Ermua eta Mallabiko 'Drogetenitturri' herri aldizkarian, 2006ko ekainaren 136 zenbakian, berari egindako elkarrietzeta bat dago irakurgai.

Zintak

MAL-047

- **Proiektua:** Ermuko Ahozko Ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Data:** 2008-06-09
- **Iraupena:** 85 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Emalea:** Gonzalez, Esti

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-26

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com